

## **Gata Lurmuturra. Historia eta itsasontzi hondoratzeak.**

Haizeak ebakitako Gata lurmuturreko kostalde latza penintsulako itsasertzeko eremu liluragarri eta txundigarrienetariko bat da. Espainiar hego-ekialdeko paraje bakana, non duela milioika urte bihotz bolkaniko batek taupaka egiten zuen.

Geologia eta historiak beraien biziraupenagatik borrokatu zuten kultura anitzen aztarnez beteriko lur eta paisaia bat sortu zuten.

Klima eta kultura elkarbanatu zituzten Afrika iparraldearekin, nekazaritzari loturiko baliabideak gotorlekuen hondar eta batez ere babes funtzioa zeukaten eraikinekin aldizkatzen dira. San Felipeko Bateria Gotortua bezala, 1735. urtean diseinatua, Carlos III.-aren erregealdian zehar, eta 1991-n ahanzturatik aterea zaharberritzeko.

Historia eta elezaharrak nahastu egiten dira San Pedro gazteluan, hiru zatitan eraikia, hiru mende ezberdinetan. Beste garai bateko hondakinen artean, kokaleku pribilegiatua du, izen bereko itsasartearen parean. Eta hor jarraitzen du 1583-az geroztik.

Lurrikarek, sumendiek edo piratek bezala, hondoratzeek ere aztarna ezabaezina utzi dute Gata lurmuturreko itsas hondoko bizitzan. Mikrohabitat desberdinen mosaiko bat pilatzen da El Águila fragataren kanioi erdoilduen azpian. Antzinako itsaso batean izandako liskar itxiez hitz egiten digun XVII. mendeko itsasontzi bat. Paradoxikoki, bere hondoratzearen ostean eta mendeak joan ahala bizi forma berriei aterpea eskaini die.

Korronte atlantiar eta mediterranean bat egiteak mila espezie baino gehiagori bide ematen die itsaso honen ur azpian. Kolore berde, ubel, gorrixka eta laranja nabarmentzen dira itsas hondoren gainean, ezkutuko kode sekretu eta ederren mundu bat agerian utziz.

Gata lurmuturreko itsasargiaren hego-mendebaldean eta 40 metroko sakoneran, korronte gogorrak direla-eta, murgiltzea arriskutsua den eremu batean, 30 hamarkadan hondoratutako merkataritza ontzi bat aurkitzen dugu. 75 metro luze, itsas faunarentzat babesleku eta organismo iragazleentzat euskarri egoki bihurtu da. Bere silueta eta perfila, ezaguterrazak izan arren, itsas-historiaren zati hau nahi gabeko uharri da jada, eta bere landare eta animali gainestaldurak biodibertsitatea eskaintzen dio komunitateari.

Baina bizitzak indarrez aurrera egiten duen bilgune honetan, milaka bizi forma elikatzeke, babesteko edo ugaltzeko elkartzen diren gunehonetan, zenbait arrain isilgordean mugitzen dira, aukera egoki baten zain.

Meroa eta itsas-sugea bezalako harrapariak historiaren labirintoetan zehar irristatzen dira, burdin eta itzal artean bere harrapakinak ehizatzeke une egokiaren zain.